

2. ERANSKINA: PROZESU-MATRIZEA

IV. Gida Planaren prozesu-matrizearen eskemari jarraikiz, jardun estrategikoko 8 ardatzetan eta IV. Gida Planak barne hartzen dituen 6 elementu gehigarritan garatutako ekintza nagusiak aurkezten ditugu eranskin honetan.

IV. Gida Planaren jardun estrategikoko ardatzen eta elementu gehigarrien norainokoa eta balorazioa, eLankidetzaren barnean horien ardura duten pertsonekin definitu dira, hasiera batean. Gainera, IV. Gida Planaren bitarteko ebaluazioaren esparruan hainbat eragilek erantzun dituzten galde-sorten erantzunak hartu dira kontuan, baita egindako bi tailerretan jasotako ahotsak ere.

Prozesu-matrizearen jardun-ildoen aurrerapena islatzeko, semaforoaren sinbologia erabili dugu: planifikatutakoaren arabera aurrerapenak izan dituzten ekintzak **berdez** nabarmendu ditugu; aurrerapen esanguratsua izan arren, planifikatutako sakontasun-mailan aritu ez direnak, berriz, **loranjaz**, eta, azkenik, aurrerapen esanguratsu gutxi edo bat ere egin ez dutenak, **gorriz**.

Jarraian aurkezten dugunak ez du IV. Gida Planaren prozesu-matrizearen xehetasun-maila osoa jasotzen, laster matrize hori berrikusi eta sinplifikatuko delako, bereziki analisi kategoria eta adierazleei dagokienez. Eguneratze hori egingo dugu behin betiko prozesu-matrizea eraikitzeko, horretan oinarrituta, 2018-2023 aldiko prozesua neurtzeko. Hau da, matrize komun bat eraikiko dugu, IV. Gida Planaren 2018-2021 hasierako egikaritzealdirako zein 2022-2024 luzapenerako.

1 GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIA

Arkitekturaren garapena

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Garapen jasangarrirako politiken koherentziarako lantaldea sortzea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan, 2019an.
- Garapenerako politiken koherentzia-printzipioaren betetze-mailaren gaineko hezkuntza-txostena egitea eta gizarteratzea. Aldirako aurreikusitako bi txostenetatik bat egin da.
- Eusko Jaurlaritzako pertsonentzako sentsibilizazioa eta prestakuntza. Unean uneko prestakuntza-ekintza batzuk baino ez dira burutu.

Eusko Jaurlaritzako sailak beren jardun-eremuekin lotutako lankidetzakiminetan sartzea.

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Eusko Jaurlaritzako sailak lankidetzakiminetan sartzea (zenbaitetan, lankidetzakiminetako elementuak barne hartuz). Besteak beste, honako ekimen hauek nabarmentzen dira: Landa Topaketak, Heziketa Topaketak, Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa, uraren erakundearteko programa URA-Uraren Euskal Agentziaren parte-hartzearekin, Emakundek NBEko Emakumeen El

Salvadorreko ekimenean parte hartzea, Osasunetikiko ekimena Ginea Bissaun, Hezkuntzarekin UNICEFen Kamerungo eta Malawiko ekimenean, etab.

Ekintza pilotuak

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- AUZO(LAN)KIDEAK GIZA ESKUBIDEEN ALDE: enpresak eta Giza Eskubideak. eLankidetzak parte-hartzea izan zuen enpresa eta giza eskubideei buruzko etorkizuneko planerako oinarrien dokumentua egiteko prozesuan.
- AUZO(LAN)KIDEAK EROSTERAKOAN: erosketa publiko arduratsua. eLankidetzan barne- eta kanpo-dimentsioko proposamen bat landu zen, baina haren inplementazioan inolako aurrerapenik egin gabe.
- AUZO(LAN)KIDEAK MUNDUAN. Kanpo-ekintzarako eta eLankidetzarako lehentasunezko herrialdeen bat-egitearen barne-analisi bat egin zen, baina Kanpo Ekintzarekiko artikulazioan ez zen aurrera egin eremu horretan.

Erakundearteko koordinazio eta artikulazio handiago bat

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Aldian behin erakundearteko bilerak egin dira, nola Garapenerako Lankidetzaren Erakundearteko Batzordeari dagozkionak —gune politikoa eta talde teknikoa—, hala ekimen zehatzen gaineko beste bilkura espezifikoko batzuk —uraren erakundearteko programa, 1/2007 Legea berritzeko prozesua, erakundearteko ekimena Senegalen, etab.—.
- 2018an, Euskal Lankidetzaren Publikoaren Atariaren promozioa, eta, ondoren, urtez urteko datu-eguneratzeak.
- AUZO(LAN)KIDEAK ELKARREKIN: uraren erakundearteko programa. 2018-2021 programaren lehen edizioa garatu da El Salvadorren, Costa Rican eta Euskadin, haren sistematizazio bat egin da, eta 2021-2024 bigarren edizioa formulatu eta hasi da, Erdialdeko Amerikako erregio-dimentsio bat erantsiz.
- AUZO(LAN)KIDEAK KOMUNIKAZIOAN. (H)ABIAN 2030 ekimenaren eta ekimen enblematiko honen esparruan hasiera batean aurreikusitako kanpaina ez bazen ere, nabarmentzekoa da 2020an “Elkarlanean dihardugu. Pertsonen bizitzak hobetzen ditugu” komunikazio-kanpaina egin zela, COVID-19ak eragindako krisiaren testuinguruan.
- (H)ABIAN 2030. Estrategiaren oinarri-lerroa landu zen, eta gogoetarako aldizkako guneak sortu dira (jardunaldiak egitea, (H)ABIAN 2030 ekimenaren jarraipen-taldearen bilerak, etab.).
- Beste Autonomia Erkidego Batzuekin lankidetzaren alorreko koordinazioa bultzatzea. Bi prozesu bultzatu dira, Guatemalan eta Kolonbian, beste Autonomia Erkidego batzuekin antolatuta. Autonomia Erkidegoen eta Garapenerako Lankidetzaren Topaketetan parte hartu da, eta, esparru horretan, baterako keinuak eta adierazpenak egin dira (2020 eta 2021).
- Euskal Lankidetzaren Publikoaren Foroa egitea. Aldi horretarako aurreikusitako foroetako bat egin da: Lankidetzaren deszentralizatuko jardunaldiak 2020ko otsailan, Bilbon.

- Euskal lankidetzaren erakundeek ez dute baterako ebaluaziorik garatu.



2 EREMU ESTRATEGIKOAK

Funtzionamendu-, kudeaketa-, jarraipen- eta ebaluazio-ereduaren garapena

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Aurrera egin da eremu estrategikoen funtzionamendu- eta kudeaketa-ereduaren garapenean. 2018an, kudeaketa-sistemaren lehen zirriborro bat egin zen, baina ez zen partekatu. 2019an, AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN 1. Eremu Estrategikoaren oinarri partekatuen Akordioa landu eta onartu zen.



Bi eremu estrategiko martxan jartzea

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN: gatazken eraldaketa eta bakegintza 2019an Eremu Estrategiko horrek bat egin zuen 14 eragileren parte-hartzea duen Kolonbia Mahaiarekin. Kolonbia Mahaian aurrerapenak izan badira ere — esaterako, Caucako Iparraldeari lehentasuna eman zaio, eta bertan bi ekimen identifikatu eta garatu dira—, guneak ez dio Eremu Estrategikoaren logikari jarraitu.
- AUZO(LAN)KIDEAK EKONOMIAN: eredu ekonomiko solidarioa Gunea 2019an sortu zen, 16 eragileren parte-hartzearekin. Elkar ezagutzeko eta lan-proposamenak diseinatzeko prozesu batekin hasi zen, baina COVID-19aren eraginez gunea bertan behera geratu zen, eta harrezkero ez da berreskuratu. Hala eta guztiz ere, gaiari lotutako bi dirulaguntza zuzen onartu dira.



Esperientzia gizarteratzea eta balioan jartzea + esperientzia ebaluatzea

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Bi eremu estrategikoei ibilbide laburra egin dutela aintzat hartuta, esperientzia gizarteratzeko eta balioan jartzeko prozesua ez da garatu, ezta haren ebaluazioa ere.



3 TOKIKOA-GLOBALA

Tokikoa-globala ikuspegia sakontzea

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- IV. Gida Plana egiteko prozesuan, eLankidetzan barne-dokumentu bat egin zen, tokikoa-globala ikuspegia ulertzei eta tresnetan txertatzeko aukerari buruz. Harrezkero, dokumentuarekin ez da sakondu edo aurrerapenik egin.
- Ikuspegia tresna guztietan txertatzea. 2019az geroztik ikuspegia Proiektuen (PRO) deialdiko 3. kapituluan (K3) txertatu izana eta 2019az geroztik tokikoa-globala ikuspegia Programen (PGM) dekretu berriko elementu nagusitzat jo izana izan dira bi aurrerapen esanguratsuenak.



- Jardunbide egokien identifikazio eta analisi sistematikorik ez da garatu, ikuspegia eLankidetzak akonpainatutako ekimenetan txertatzeari dagokionez.
- Ariketa sistematiko hori egin ez bada ere, ikuspegiaren gaineko trukerako eta ikaskuntzarako guneak ahalbidetu dira (adibidez, 2020an Euskadiko GGKEen Koordinakundeak, Hegoak eta eLankidetzak batera antolatutako jardunaldiak).

Sareak eta aliantzak bultzatzea

Ekintza nagusiak	Aurrerapen-maila
<ul style="list-style-type: none"> • eLankidetzarako interes-sareen sakoneko identifikaziorik ez da garatu. • Identifikazio hori gabe ere, eLankidetzak sareetan parte hartu du (esaterako, PLATFORMAn), eta beste eragile batzuen parte-hartzea bultzatu/ahalbidetu du (IM-Defensoras, La Vía Campesina, etab.) finantzatutako ekimenen bitartez. 	

Gaitasunak indartzea

Ekintza nagusiak	Aurrerapen-maila
<ul style="list-style-type: none"> • eLankidetzak zein beste eragile batzuek gaian dauzkaten prestakuntza-premien gainean aurreikusita zegoen inkesta ez da garatu, eta, horren ondorioz, horri buruzko prestakuntza-plana garatu gabe geratu da. 	

4 GIZA ESKUBIDEAK

Giza eskubideen ikuspegia sakontzea

Ekintza nagusiak	Aurrerapen-maila
<ul style="list-style-type: none"> • Ikuspegia tresnetan nola zehazten den berrikustea. Proiektuen (PRO) eta ekintza humanitarioaren (EHE eta PRE) 3. kapituluko (K3) baremo eta formularioetan berrikusi da. • Jardunbide egokien identifikazio eta analisi sistematikorik ez da garatu, ikuspegia eLankidetzak akonpainatutako ekimenetan txertatzeari dagokionez. • Ariketa sistematiko hori egin ez bada ere, ikuspegiaren gaineko trukerako eta ikaskuntzarako guneak ahalbidetu dira (adibidez, 2021ean Euskadiko GGKEen Koordinakundeak, Hegoak eta eLankidetzak batera antolatutako jardunaldiak). 	

Koordinazioa eta ikaskuntza giza eskubideen defendatzaileen babesaren alorrean

Ekintza nagusiak	Aurrerapen-maila
<ul style="list-style-type: none"> • Babes-ekimenen mapaketa bat egin da, ekimenak hiru mailatan identifikatuz: (i) babesean zentratuak, (ii) babes-elementu garrantzitsuekin, eta (iii) unean uneko babes-jarduerekin. • Emandako funtsen gutxienez % 4 babeserako izatea lortu da, urtero. 	

- Ekimenen mapaketa bat eskura izan arren, truke, ikaskuntza eta koordinaziorako guneak sortzeko aukerarik ez da izan.



eLankidetzaren babeserako zeregina indartzea

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzarekiko artikulazioa eta koordinazioa indartu da, eLankidetzak Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programan parte hartuz eta babes-alarrean Eusko Jaurlaritzaren esparru komun bat zehaztuz.
- eLankidetzak bere 2020-2023 Ibilbide Orria definitu du, babes-alarrean betetzen duen zeregina hobetzeko.
- Babes-alarrean komunikatzeko eta eragiteko protokolo bat sortzeko lanak hasi dira.



5 GENEROA

Emakumeak ahalduntzeko zeharkako eta sektoreko ikuspegia sakontzea

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Emakumeak ahalduntzeko ekimenen mapaketa bat egin da.
- Ekimenen mapaketa bat hasi da, genero-ikuspegia ongi txertatuz.
- Aurreko mapaketak eduki arren, jardunbide egokien truke, ikaskuntza eta koordinaziorako gunerik ez da sortu ahalduntzeko eta genero-ikuspegiko lerroen gainean.
- Urtero lortu da, emandako funtsen gutxienez % 20 emakumeak ahalduntzeko ekimenetarako izatea, eta % 10, berriz, Hegoaldeko erakunde feministentzat.
- Entitateetan genero-berdintasunaren aldeko planak bultzatu dira, genero-zeharkakotasuna sustatzeko funtsezko elementuak diren heinean: (i) 2018-2021 aldian, genero-berdintasunaren aldeko 20 prozesu akonpainatu dira (GBA), (ii) Euskadiko GGKEen koordinakundearekin batera, gaiaren gaineko lau jardunaldi antolatu dira, eta (iii) 2018an, Lorena Pajaresen *Garapenerako GKEetan generoak dituen erresistentzien analisia* argitaratu zen.



Sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Ikuspegiaren ezagutzan sakondu da, 2021ean egindako eragileentzako prestakuntza baten bitartez. Aldez aurretik, gaiarekin lotutako ekimenen mapaketa bat egin zen, eta bilerak egin ziren entitate espezializatuekin eta ikuspegia txertatzeko lanetan esperientzia duten GGKEekin.
- 2019an aurrera egin da, Proiektuen (PRO) 3. kapituluan (K3) ikuspegia txertatuz. Gainerako tresnetan ez, ordea.



- Ekimenak ahalbidetu dira gai horri loturik. 2018-2021 aldian, gaian zentratutako 8 ekimen onartu dira. Gainera, genero-berdintasunaren aldeko prozesuetan (GBA), batzorde mistoetan, ikuspegia integratzeko eta/edo aintzat hartzeko aukera bultzatu da.

eLankidetzan genero-zeharkakotasuna indartzea

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- 2018an diagnostikoa egin zen; eta 2020an, eLankidetzaren 2021-2024 Genero Berdintasunaren aldeko Antolamendu Adaketarako I. Plana onartu zen. Haren implementazioa garatzeko dago.

6 AFRIKA

Afrikan zentratutako ekimenak sustatzea, Afrikako eragileekin

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Afrikaren aldeko ekimenak bultzatu dira, zuzeneko dirulaguntza eta deialdien bitartez, tresnetarako funtsen erreserba ezarriz. 2021ean, lehen aldiz, Afrikari emandako funtsen ehunekoak % 25a gainditu du. Aldiko gainerako urteetan ez zen ehuneko hori lortu.
- Baremoak Afrikako testuinguruaren errealitateara egokitu dira partzialki, Afrikako ekimen kopuru handiago bat ahalbidetzeko.
- Euskadin Afrikako errealitateak ezagutzeko aukera bultzatu da zenbait ekintzaren bitartez, hala nola Afrikako Egunaren ospakizunen akonpainamendua edo Afrikaldia zikloa. Sakontasun-maila handiago bat izan litekeela uste dugu.
- Agian nahi den sakontasun-mailarekin ez bada ere, euskal entitateen eta Afrikako aktoreen arteko konexioa sustatu da, ekimenetan akonpainatuz (Africa Basque Challenge, adibidez), jardunaldiak garatuz (esaterako, INADES eta Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpaina 2021ean), etab.

Eragileak indartzeko elkartzeko eta ikaskuntzarako guneak sortzea

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Senegalgo eta Kongoko Errepublika Demokratikoko entitateen gaitasunak indartzeko prozesuak garatu dira, herrialde horietako entitateetako koordinakundeei zuzeneko dirulaguntzak emanez.
- 2018an eta 2019an, Euskadiko sektoreko entitateentzako prestakuntzak egin ziren. Harrezkero ez zen gehiagorik egin, besteak beste, COVID-19aren ondorioz.
- Unean-unean, tokiko bazkide potentzialen eta euskal entitateen arteko harremana sustatu da.
- Migratzaile-elkarteetara hurbiltzea eta haiekin ekimenak egitea ahalbidetu da (Afrikako eguna ospatuz edo zenbait ekimen bultzatuz, hala nola Afrikaldia, Afrika Murgiltzen, etab.).

- Hainbat eragilerentzako gai eta testuinguruari buruzko prestakuntza espezifikorik ez da zehaztu.



eLankidetzaren zeregina indartzea

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Bilerak egin dira instituzio homologoekin, tokiko entitateekin, euskal entitateekin, etab., hainbat jarraipen-bidairen eta bileraren bitartez.
- Gaitasunak indartzeko prozesuak garatu eta zuzeneko zenbait ekimen bultzatu dituzten testuinguruak lehenetsi dira, Senegal eta Kongoko Errepublika Demokratikoa, adibidez. Aurrekoak bide eman du errealitatearen ezagutzan sakontzeko, baina oraindik badago tarterik jardun-eremu potentzialak zein diren identifikatzeko.
- eLankidetzako taldearentzat ez da Afrikari buruzko prestakuntza espezifikorik garatu.



AUZO(LAN)KIDEAK

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- AUZO(LAN)KIDEAK HEZKUNTZAN Afrika eta Euskadi harremanetan jarri dira hezkuntza-alarrean zuzeneko dirulaguntzen bitartez: lehen hezkuntzan, UNICEFekin eta Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainarekin; eta bigarren hezkuntzan, berriz, Afrika Murgiltzen ekimenaren bitartez.
- AUZO(LAN)KIDEAK INGURUMENEAN. BC3rekiko eta INADESekiko zuzeneko dirulaguntzen bitartez, ingurumeneko lana indartu da, Afrika eta Euskadi harremanetan jarriz.
- AUZO(LAN)KIDEAK TEKNOLOGIAN. Zuzeneko dirulaguntzak zehaztu dira alor horretan (Sic4Change eta Barefoot College ekimenak), baina Afrikaren eta Euskadiren arteko lotura garapen-bidean dago oraindik ere.
- AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN: gatazken eraldaketa eta bakegintza. Ereku Estrategikoaren esparruan, Laku Handiekiko elkarrizketa eta konexioa indartu nahi dira. Ildo horretan, gai horrekin lotutako zuzeneko dirulaguntzak zehaztu dira Mujeres por África fundazioarekin, Synergie-rekin eta Dialogue Advisory Group-ekin.



7 GATAZKAK ETA BESTELAKO INDARKERIA-EGOERAK

Erakunde humanitarioak indartzea

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Azterlan bat eginez, 2018an, Euskadiko entitate humanitarioen prestakuntza-premiak identifikatu ziren. Harrezkero, hainbat gai buruzko Esperientziak Elkartrukatzeko eta Prestakuntzarako lau Gune sortu dira. Gune horiei guztiei buruzko balorazioak positiboak izan dira, eta ekimenen formulazioetan zenbait gai aplikatu dira.
- Ebaluazio- eta ikaskuntza-alarrean azterlan bat egin da parte-hartzearen eta kontuak ematearen gainean (bi ebaluazio zeuden aurreikusita dagokion



aldian). Gainera, 2019ko dekretu berrian, ebaluazio-partida espezifiko bat sartu da ekintza humanitarioko ekimenei loturik (PRE eta EHE).

Kontuak ematea eta sentsibilizazioa

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Erakunde humanitarioen kontuak emateko gaitasunak hobetu dira parte-hartzeari eta kontuak emateari buruzko azterlanaren eta haren zabalkundearen bitartez, eta 2021ean prestakuntzarako bi gune ahalbidetuz.
- Lekukotzak biltzeko, sentsibilizatzeko eta eragiteko jardueren garapena ahalbidetu da, formulario eta txostenetan atal espezifikoak txertatuz, ekintza humanitarioko dekretu berria onartu ondoren.
- Ekintza humanitarioak bideratzeko komunikazio-produktuak sortu dira (esaterako, krisi humanitarioei buruzko bideo bat egin da, eLankidetzaren webgunean fitxak eskuragarri jarri dira larrialdi-uneetarako, etab.).
- Komunitate eta herritarren aurrean kontuak eman dira eLankidetzak ekintza humanitarioaren alorrean egindako jardunen gainean (urteko memoriak, prentsa-oharrak, etab.), eta zeregin horretan hobetzeko tarterik bada oraindik ere.

eLankidetzaren zeregina eta beste eragile batzuekiko koordinazioa indartzea

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- eLankidetzak ekintza humanitarioari buruzko 16 eztabaidagunetan parte hartu du.
- Koordinazio-ekintzak zehaztu dira, eta horiek areagotzeko aukera izango da START ekimenaren, Eusko Jaurlaritzako giza eskubideetako, migrazioko edo asiloko zuzendaritzen eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren Ekintza Humanitarioko Bulegoaren eskutik.
- eLankidetzako langileentzat ez da ekintza humanitarioko prestakuntza jarraiturik garatu.

Ekintza humanitariorako funtsak

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Emandako funtsen gutxienez % 10 ekintza humanitariorako izatea lortu da, urtero, eta horien barruan, gutxienez % 9, gatazkei eta bestelako indarkeria-egoerei heltzeko. Aurrekoa lortu da ekintza humanitarioko deialdien (PRE eta EHE) eta zuzeneko dirulaguntzen bitartez.
- Larrialdi-funtsetarako deiei eta eskaerei erantzun zaie (zehazki, Larrialdietan Ekiteko Funts Zentrala —CERF, ingelesezko sigletan— eta UNRWA).

8 EZAGUTZA ETA IKASKUNTZA SORTZEA

Ezagutza kudeatzeko estrategia bat diseinatzea

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Ezagutza kudeatzeko estrategia bat zehaztu ez bada ere, aurrerapenak izan dira:
 - Ardatzen araberako ekimenen mapaketak gauzatu dira, ardatz bakoitzeko ikaskuntza-lerro bat ezartzeko lehen urrats baten modura.
 - Aurrerapenak egin dira eLankidetzatik akonpainatzen diren ekimenen datuak atera eta ustiatzeko.

Ebaluazio-plan baten diseinua

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Ebaluazio bat zehaztu ez bada ere, aurrerapenak egin dira:
 - Azken urteetan akonpainatutako ekimenen ebaluazioak egin dira, eta ebaluazioen analisi bat egin da: ikuspegiak, gaiak, metodologiak, erremintak, etab.
 - eLankidetzaren berezko edo baterako ebaluazioak egin dira (Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa, ur-programaren lehen edizioaren sistematizazioa, komunikazio-ekimenen ebaluazioa, etab.), kudeaketa-txostenaren praktika sustatuz behin ebaluazioa amaitu ondoren.
 - eLankidetzak integratu da Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioko Garapen Jasangarriko Politiken Zuzendaritza Nagusiak (DGPOLDES) sustatutako lankidetzak deszentralizatuko eragileekiko ebaluazioari buruzko lantalde batean.

Ikerketa bultzatzea

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Proiektuen (PRO) 3. kapituluaren (K3) esparruan egindako ikerketen mapaketa bat egin da.
- eLankidetzatik ikerketak bultzatu dira (esaterako, 1/2007 Legearen txostena, Kolonbiako protesta sozialari buruzko azterlana edo lankidetzak deszentralizatuaren gaineko gogoetak COVID-19aren esparruan).
- Tresna propio baten egokitasunari buruzko analisirik ez da egin, eta eragileen ikerketa-gaitasunak ere ez dira indartu, sistematikoki.

9.GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA

ARAR 1. Ekintzarako prestakuntza

Aurrerapen-maila

Ekintza nagusiak

- 2018-2021 aldian 57 ekimen bultzatu dira ekintzarako prestakuntza bultzatzeko, proiektuen (PRO) eta zuzeneko dirulaguntzen deialdiaren bitartez.
- Jardunbide egokiak identifikatu dira ildo horretan, ekimenak ixteko bilerak eta hainbat gune eta jardunalditan aurkezpenak egin baitira.

- Lau Heziketa Topaketa egin dira Hezkuntza Sailarekin antolatuta, eta horien gida eta bideoak zehaztu dira.
- Ahalduzko estrategia positiboen Jardunaldietatik aldirako aurreikusita zeuden bi edizioetatik bat egin da (2018).

ARAR 2. Ekintza eraldatzaileak

Aurrerapen-maila

Ekintza nagusiak

- 2018-2021 aldian 53 ekimen bultzatu dira ekintza eraldatzaileak bultzatzeko, proiektuen (PRO) eta zuzeneko dirulaguntzen deialdiaren bitartez.
- Jardunbide egokiak identifikatu dira ildo horretan, ekimenak ixteko bilerak eta hainbat gune eta jardunalditan aurkezpenak egin baitira.
- Euskadiko Gazteak Lankidetzan Programaren ebaluazioa garatu da, eta, horren ildotik, ekimenari hobekuntzak erantsi zaizkio.
- Mobilizatzeko eta eragiteko ekimenak bultzatu dira, tokiko presentziarekin eta presentzia globalarekin.

ARAR 3. Instituzio hezitzailea

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Hezkuntza Sailarekiko artikulazioa eta lana indartu dira, hainbat ekimenen bitartez.
- Baterako zenbait artikulazio eta ekintza izan badira ere, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideekiko zein Landa Garapeneko zuzendaritzekiko lanean sakontzeko tarterik badago oraindik.
- Ikertze-bilerak izan badira ere, Ingurumenarekin oraindik ez da ekintza zehatzik adostu.
- Komunikazio hezitzaileko ekimenak garatu dira (esaterako, komunikazio-kanpaina COVID-19aren esparruan edo eLankidetzaren apustu nagusiak webgunean zabaltzea), baina hobetzeko tarterik badago oraindik ere.

ARAR 4. Ikaskuntza-kultura

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin eta Hegoarekin elkarlanean, lau jardunaldi burutu dira (H)ABIAN 2030 ekimenaren indar-lerroak garatzeko.
- Euskadiko GGKEen Koordinakundeko hezkuntza-taldearekiko koordinazioa badago, nagusiki proposamen zehatzen gainean. Baina, berez, egituratutako eta/edo aldizkako elkarrizketarik ez dago.
- Aurreikusitako bi ebaluazioetatik bat hasi da, komunikazio hezitzaileko esperientziei buruzkoa, hain zuzen. Gainera, ARAR 2017-2020 – eLankidetzaren gizarte-eraldaketarako hezkuntzarako ekintza-planaren bitarteko eta azkeneko barne-ebaluazioak egin dira.

10 LEHENTASUN TRANSBERTSALAK ETA GEOGRAFIKOAK

AUZO(LAN)KIDEAK INGURUMENEAN: jasangarritasun ekologikoko transbertsala eta ingurumen-alorreko ekintzak

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Zenbait ekintza eta topaketa zehaztu dira ingurumen-alorrean (esaterako, INADESekin), IHOBerekin ere bilerak egin dira aukerak aztertzeko, eta oraindik gauzatzeko dauden zenbait proposamen sortu dira, Klima Topaketa bat antolatzea adibidez.
- Ikuspegiaren gaineko prestakuntza eta gogoetarako gunerik ez da antolatu, eta horren gaineko ebaluaziorik ere ez da egin.

Berrikustea eta sakontzea lehentasun transbertsalak ulertu eta aplikatzeko garaian

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Proiektuen (PRO) eta ekintza humanitarioaren (PRE eta EHE) 3. kapituluko (K3) baremoak berrikusteko prozesuan, zeharkako lerroen zehaztapena berrikusi zen tresna horietan. Beste tresna batzuetan ez da berrikuste hori egin.
- Gainera, ekintza humanitarioan, parte-hartzeari eta kontuak emateari (PRC) buruzko prestakuntzarako guneak antolatu dira.

Gai geografikoak

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Lehentasunak ez dira sistematikoki identifikatu testuinguruaren arabera. Alabaina, Kubaren kasuan zehaztapen bat izan da, 2020an Elkar Ulertzeko Memorandum bat sinatu baitzen Kubako MINCEX Kanpo Merkataritzako eta Atzerriko Inbertsioko Ministerioaren eta eLankidetzaren artean, non, besteak beste, lehentasun sektorialak identifikatu diren.
- Asiarako neurri positiboak hartzeko egokitasuna aztertu da, baina ez da neurririk zehaztu, onartutako ekimenen kopuruaren eta aurkeztutako ekimenen kopuruaren arteko ratio handienetako bat duen eremu geografikoa delako.
- Herrialde edo eremu geografikoei buruzko bilera geografikoak garatu dira, urtean behin (Saharako Arabiar Errepublikako Demokratikoa, Palestina, Afrika, Kuba, etab.).

11 KOMUNIKAZIOA

Komunikazio-plana

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- eLankidetzaren 2019-2022 I. Komunikazio Plana zehaztu da.

- Plan hori bultzatzeko, eLankidetzaren komunikazio-arkitektura zehaztu da: komunikazio-teknikari bat, Komunikazio Kontseilu baten laguntzarekin.

Webgunea eta sare sozialak

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- eLankidetzaren webgunea berdiseinatzeko prozesua hasi da, baina ez da oraindik amaitu.
- Lehenetsitako bi sare sozialetan presentzia igo bada ere (Twitter eta Youtube), hobetzeko tarte badago, eta sare sozialen beste aukera batzuk ere aztertuko dira.

Kontuak ematea

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Gardentasun-ekintzei dagokienez, urteko memorien formatu bisualago berri bat definitu da (proiektu-mapekin, infografiekin, etab.).
- Gainera, 2018an Euskal Lankidetzaren Publikoaren Ataria atara zen, eta urtero urtero eguneratu da.

Kanpainen garapena eta unean uneko ekintzen inplementazioa

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Aldirako aurreikusitako bi komunikazio-kanpainen bat egin da bakarrik, COVID-19aren esparruan egin zena. Gainera, besteak beste, ikus-entzunezko produktu bat egin zen krisi humanitarioetan elkartasun-ekintzak bideratzeko.

Komunikazio hezitzaileko esperientzien gaineko ikaskuntzak lortzea eta gizarteratzea

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Komunikazio hezitzaileko esperientzien gaineko ikaskuntzak lortzeko eta gizarteratzeko prozesua abian da, dagokion ebaluazioa hasi delako, oraindik amaitu ez bada ere.

12 JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Ekintza nagusiak

Aurrerapen-maila

- Urteko planak eta urteko memoriak egin eta gizarteratu dira.
- IV. Gida Planaren adierazle-matrizea ez da gauzatu. IV. Gida Planak badu analisi kategorien eta/edo adierazleen matrize bat, baina horiek oso ugariak dira, eta batzuetan zehaztu gabe daude edo oinarri-lerrorik ez dute. Aurreikusita zegoen plana onartu ondoren, urtebeteko epean, adierazle-bateria zehaztea eta lehen oinarri-lerro bat egitea, baina zeregin hori ez da oraindik gauzatu.

- 2021ean, IV. Gida Planaren 2018-2021 aldiaren barne-ebaluazioa hasi zen. Plana luzatze-prozesuan dagoenez, azken ebaluazioa luzapen hori amaitzean egingo da.
- IV. Gida Planaren AUZO(LAN)KIDEAK ekimenen ebaluazioa ez da garatu.

13 ARAU-BERRIKUSPENA

1/2007 Legea

Ekintza nagusiak	Aurrerapen-maila
<ul style="list-style-type: none"> • 1/2007 Legearen potentzialitate eta mugen gaineko analisi bat egin zen (Koldo Unceta txostena), eta hainbat gunetan eztabaidatu eta gizarteratu zen, besteak beste, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan. • 2021ean, eLankidetzak kontsultarako eta parte hartzeko prozesu bat gidatu zuen lankidetzaren eragileekin, 1/2007 Legea berrikusi eta eguneratzeko. Legeberriaren zirriborro-dokumentu bat eginez zehaztu zen prozesu hori. • Euskal Autonomia Erkidegoko Garapenerako Lankidetzako Eragileen Erregistroari buruzko Dekretua, 2018an argitaratua. 	

Dekretuak eguneratzea

Ekintza nagusiak	Aurrerapen-maila
<ul style="list-style-type: none"> • Espezializazio-beken deialdia (BEK), 2017an argitaratu zena eta 2018an deialdi berri bat duena. • Genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketari buruzko Dekretua (GBA), 2018an argitaratua. • Ekintza humanitarioko Dekretua (PRE eta EHE), 2019an argitaratua. • Ignacio Ellacuría Sariaren Dekretua (SAR), 2020an argitaratua. • Programen Dekretua (PGM); dekretu-proposamen bat zehaztu da. 2022an argitaratuko dela aurreikusten da. • NBE Beken Dekretua (NBE); lotutako eragileekiko barneko kontsulta-prozesua hasi da. • Proiektuen Dekretua (PRO), berrikuste-prozesua hasi gabe. • Kooperante profesionalen Dekretua (KOP), berrikuste-prozesua hasi gabe. 	

14 KUDEAKETA

Berrikuntza administratiboa

Ekintza nagusiak**Aurrerapen-maila**

- eLankidetzaren deialdietako izapidetze elektronikoko sistema kontsolidatu da.
- eLankidetzaren kudeaketa-sisteman hobekuntzak egin badira ere (X64C aplikazio zaharretik Y27B berrirako migrazioa egin da), zenbait funtzionalitate inplementatzeko eta/edo hobetzeko daude oraindik ere.
- Dekretuak berrikustearen esparruan, kudeaketa bizkortzeko aldaketak ikertu eta/edo zehaztu dira (esaterako, baterako finantzaketa kentzea edo auditoriak ezartzea ekintza humanitarioko dekretuan); alabaina, hobetzeko tartea zabala da oraindik ere.

Pertsonak**Ekintza nagusiak****Aurrerapen-maila**

- eLankidetzako plantilla zabaldu da, haren zerbitzuak indartuz.
- 2020aren amaieran, eLankidetzaren bere egoitza berrira aldatu zen (Gaztelako Atea 15 – Vitoria-Gasteiz), bere jarduerak garatzeko aukera gehiago eskaintzen baititu: biltzeko guneak, ekitaldi-aretoa, etab.